# 4.2. Gaiaren lanketa

## > Hiztegiaren lanketa

### - Oihana bazterrean otsoa egoten da

#### • Joxe eta arropa

**Helburuak**

– Arropa hiztegia lantzea.
– Arropak izendatzea.
– Arropen hiztegia hainbat testuingurutan erabiltzea.

**Prozedura**

– Ume bakoitzari JOXE ETA ARROPA izeneko fitxa banatu.
- Fitxa horretan, batetik, bi Joxe biluzik agertuko dira eta bestetik, zenbait jantzi umeek Joxeren panpina jantzteko.
– Umeek aukeran dauzkaten arropa horietako batzuk moztu eta panpinari itsasi.
– Behin panpina jantzita, ikasleek bikoteak osatu eta elkarri galderak egin, ikaskidearen panpina nola jantzita dagoen asmatzeko.
- *Zure Joxek praka beltzak dauzka?*
- *Ez, ez dauzka praka beltzak.*
- *Praka loredunak dauzak?*
- *Bai, praka loredunak dauzka.*
– Umeek baiezko erantzuna lortzen dutenean, bigarren Joxe biluziari arropa jantzi.
– Bukaeran, bi panpinak, originala eta galderen bidez sortutakoa, berdinak diren ala ez ikusteko, fitxak elkartu.